

Kirol "inFUSIOA"

Ermua CD eta San Antonio Kirol Elkartek batu egingo dira datorren denboraldiari begira, herriko futbol taldeen egoera hobetzeko helburu bakarrarekin. Futbol federakunde mailan bi entitateak lehen bezala banaturik agertuko badira ere, herri mailan batuta egongo dira zuzendaritza bakar baten pean. Erregional Preferenteko futbol talde indartsu bat nahi da. Beste bat Bigarren edo Lehenengo Erregionalean eta behe mailetakoko taldeen mailaketa eta indartzea.

180 jokalarik bat egingo dute Ermuan herriko futbol federatuaren egoera behingoz hobetzeko eta behar duen mailara igotzeko. Orain artean Ermua CD bere aldetik zebilen eta UDSA beretik, Ermuak herri bezala ematen dituen futbolari onak bi taldeen artean banatuz. Erregionaleko futbol taldeak alde batera lagaz, gaztetxoek taldeetan somatzen zen ederki banaketa hau, batzuk UDSA nahiago zutelako eta beste batzuk, ordea, Ermua CD, talde bakoitzak zeukanarekin ahal zuena egiten ahalegindu delarik.

Jakina da maila oneko talde nagusiak izateko, gaztetxoek taldeak direla zaindu beharrekoak, harrobi lanari arreta handiz jarraitu behar zaiolarik. Ermuan azken urte hauetan egindako lan horrek ez ditu espero zitezkeen fruituak eman, bolada bakoitzeko jokalaririk onenak bertako bi taldeen artean banatzen zirelako.

Ermua CD eta UDSAk burutu beharreko fusioak aipaturiko biderketa hau saihestea lortuko du, bi futbol taldeen harrobi lana bateratuz. Jubeniletan, kadetetan zein Infantiletan lortu nahi dena zera da, bi talde izatea maila bakoitzeko, lehen taldea ahalik eta kategoria altuenean (jubeniletan eta kadetetan



IGNACIO PEREZ

Irudi hauek gutxi barru errepika daitezke.

gutxienez Euskal Ligan), bigarren ekipoa maila horretara ailegatu berri diren futbolari gaztetxoek egokitzen eta ikasten joan daitezke.

Filosofi berberaz lan egingo da Bigarren Erregionaleko ekipoa (1. Erregionalean lehen bait lehen igo nahi dena). Bertara pasatuko dira jubeniletan hoberen dabilzan jokalaria, Ermuan izango den talderik gorenenera (gaur egun Erregional Preferentean dagoena eta 3. Mailara igo nahi dena) azken jauzia eman baino lehen.

Fusioa, ofizialki, datorren denboraldian egia bihurtuko da. Dena den, esan beharrekoa da

Ermuko bi futbol taldeek beraien estatusa mantenduko dutela Federakunde mailan, bai Ermua CD bai UDSA ere hor izango direlarik herri bereko talde ezberdin gisa. Fusio honen aldaketarik nabarmenenak izango dira 2. Erregionaleko futbol talde baten desagerpena, Ermua CDrena, zuzendaritza bakar baten sortzea, instalakuntza, ekipamendu eta aurrekontu amankomunekin. Hau da, futbol talde bakar bat bi izenekin.

Iñaki Moreno

HARATEGIA

ROSA MARI

**Baserriko okela
Etxeko odoloste eta txorizua**

Zubiaurre, 22

Tfnoa. 17 06 80

URDAITEGIA

OKINDEGIA

Ignacio Peña



Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - beheka 48260

GERALEKU

**Bost'erdietatik zabalik.
San Inazio, 5.**

GADIFOL-en

Dagoen onena, zuretzat.

Komentukoa, z/g Tlf. eta Faxe: 17 06 71

**GOZOTEGIA
DASTATEGIA**

Delicias

- Berton egiten dugu
- Etxera eramaten dizugu

Valdespina, 9 Zubiaurre, 2
Tfnoa. 17 15 67